

5. KANALAK

1. Komunikazio kanalak

Gure negozioak bezeroekin harreman ona izateko komunikazio kanal desberdinak erabiliko ditu. Lehenengo eta garrantzitsuenaren sare sozialak izango dira. TikTok erabiliko dugu gure eguneroko jarduerak erakusteko: animalien argazkiak eta bideoak, kafetegiko giroa, adinekoekin egiten diren saioak, eta antolatzen diren jarduerak. Eduki mota honek jendea erakartzen du, eta gure proiektua ezagutarazten laguntzen du. Sare sozialak erabiliko ditugu batez ere publiko helduagoarentzat, ordutegiekin, prezioekin eta ekintzekin laguntzeko. www.tiktok.com/@txakur.katuak

Bestalde, sites ofizial bat izango dugu (<https://sites.google.com/elregato.com/txakurkatuuak/inicio>), txakurkatuuak deituta, bertan, informazio osoa ondo antolatuta egongo da bezeroei gure zerbitzuekin laguntzeko. Bertan zerbitzuak azalduko dira, prezioak, animalien datuak eta erreserbak egiteko plataforma erraza. Sites-a blog atal bat ere izango du, adinekoen ongizateari, animalien zaintzari eta abandonuaren arazoari buruzko artikuluekin. Horrela, gure proiektua ez da soilik zerbitzu bat, baita kontzientziazio tresna ere.



Bezeroei arreta pertsonala ere eskaintzen zaie telefono eta posta elektroniko bidez (txakurkatuuak@gmail.com). Gure telefonoa 640 85 40 45 izango da, gainera, doakoa izango da. Bide hau bereziki erabilgarria da adinekoentzat, komunikazio sinplea eta zuzena dutelako. Zalantzak argitu, txandak hartu edo informazio pertsonalizatua eskatu ahal izango dute.



Komunikazioa ez da online bakarrik izango: Bilbo erdialdeko kaleetan kartelak jarriko dira, konkretuki San Mamesetik Abandora arte. Gainera esku-orriak banatuko dira eta gizarte zentro, osasun etxe eta

adinekoen elkarrekin informazioa utziko da. Horrela, gure mezua adinekoengana modu errazagoan iritsiko da.

2. BANAKETA KANALAK

Gure balio-proposamena bezeroengana iristeko bide desberdinak erabiliko ditugu. Gure bezero nagusiak adinekoak eta animalia-zaleak direnez, bi talde horietara iristeko modu egokiak aukeratu ditugu.

Lehenik, sare sozialak erabiliko ditugu (TikTok). Horrela, jende gazteagoa eta animalien zaleak gure jarduerak ikusiko dituzte eta proiektua ezagutuko dute.

Bestetik, sites erraza eta argi bat izango dugu. Adinekoen familiak eta gure zerbitzuak bilatzen dituztenek informazioa modu ordenatuan aurkituko dute: zerbitzuak, prezioak eta erreserbak.

Adinekoengana hobeto iristeko, telefono eta email bidezko arreta zuzena eskainiko dugu. Haien artean erraza da modu horretan informazioa eskatzea edo txanda hartzea.

Azkenik, kaleetako kartelak eta esku-orriak erabiliko ditugu Bilbo erdialdean eta adinekoen zentroetan. Horrela, gure bezero nagusiak diren adinekoak zuzenean guregana iritsiko dira, sare sozialik erabili behar izan gabe.